

Eusko Jaurlaritzak Petronoren eraginkortasun energetikoa hartu du aintzat

2009ko otsailaren 10eko datarekin, Energia eta Meatzaren Zuzendaria bi Ebazpen jaso ditu Petronorek. Haietan, Petronori 159.991,08 euroko diru-laguntza emango diotela jakinarazten da, 2005eko abenduaren 14ko Aginduaren ondorioz, efizientzia energetikoko proiektuak egiteko, urtean 1.200 tona petrolio baliokide aurreztu baitira eta urtean 3.500 tona murriztu baitira CO2 igorpenetan.

Energia eta Meatzaren Zuzendaritzak energia aurrezteko eta haren eraginkortasuna areagotzeko ekintzak eta proiektuak sustatu nahi ditu halako ekintzekin, Euskal Autonomia Erkidegoko Energia eta Ingurumen Politikaren helburuak lortu nahian.

Lehen ere lortu izan ditu diru-laguntzak Petronorek haren energia eraginkortasun programengatik. 2007an, Petronorek 54.909,27 euro inguru lortu zituen, urtean 3.502 Tona petrolio baliokide aurrezteagatik eta 11.000 tonatik gora CO2 igorri ezagatik. Era berean, Petronorek 30.000 € inguruko diru-laguntzak jaso zituen 2006an, urtean 3.048 Tona petrolio baliokide aurrezteko eta CO2 igorpenak urtean 8.500 tonatan murrizteko programarengatik.

Petronorek, Bikaintasuna lortzeko hartu duen konpromisoan, europar EFQM eredua jarraitzen eta etengabeko hobekuntzarantz zuzenduta, ingurumeneko kalteak gutxitzeko eta Ahalik eta Hobekuntza Tekniko Onenak medio, aldika inbertsioak egiten ditu energia aurreztu, haren eraginkortasuna areagotu eta energia berriztagarriak erabiltzearen alde.

Eraginkortasun energetikorako halako inbertsioek Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Energia Meatzaren Zuzendaritzaren Berrikuntza eta Energia Sailburuordearen programaren laguntza jasotzen dute, eraginkortasun energetikoko eta energia berriztagarrien erabilerarako ekintzak eta proiektuak sustatzeko, 2005eko abenduaren 14ko Aginduak arautzen duen bezala.

Aipatu beharra dago, urtero, Eusko Jaurlaritzak eraginkortasun energetikoa areagotzeko helburua duten enpresa-ekimenak goraipatzen dituela. 1995az geroztik, Petronorek plantaren kontsumoa murrizteko politika jarraitzen duela eta, ondorioz, ekipoen, prozeduren eta abarren eraginkortasuna hobetzeko ekintzak eta inbertsioak burutzen direla. Politika horren emaitzen eraginez, urtero urtero jaso dira proiektu horiek gauzatzeko beharrezkoa den inbertsiorako diru-laguntzak.

Petronorrek argi dauka energia aurreztea “inoiz bukatzen ez den bidea dela” eta duen garrantzia eman behar zaiola, ingurumenarengatik, baina baita arrazoi ekonomikoengatik ere, energiaren kostuak konpainiaren kostuen %60 baitira.

Muskizen, 2009ko otsailaren 13an